

## PAI gelditzearen beharra

Denok ezagutzen dugu **steilas** sindikatuak PAI programaren gainean duen iritzia. Programa hau ezarri duten ikastetxeak bisitatu eta iritziak jaso ditugu programaren zailtasun eta gabeziak biltzeko, betiere irakasleei sortu zaizkien kezkek eta eskaerak atzundu gabe. Ez dugu ikusi informazioa ukatzen duen berri fidagarriarik orain arte. Beraz, ados gaude Hezkuntza Departamentuko buruak, Mendoza jaunak, PAI gelditzeko hartu duen erabakiarekin, egokitasunari buruzko azterketa egiten den bitartean. Era berean, itxaropentsua da, ezbairik gabe, gobernua sostengatzen duten lau alderdien arteko akordioan neurri hori garbi jaso izana.

Berria agertu zen momentutik beretik UPN, PPN, PSN eta AFAPNA sindikatuak kritika zorrotzak egin dituzte, baita hamaika agerpen, komunikatu eta iritzi artikulua ere erabakia kritikatzeko, eta oraintsu arte ikurra izan den Iribas jaunaren programaren defentsa sutsua erakutsi dute. Euren iritzia defendatzeko familien ustezko "hautatze eskubidea" argudiatu dute eta, ikasleen baliabide ekonomikoak edozein direlarik ere, programak bermatutako "ezinbesteko" ingeles maila nabarmentzen.

Hautatzeko askatasuna (usu, ikastetxea hautatzeko ustezko eskubidearekin lotua) defendatu du irmoki aurreko gobernua eta sostengatu duten alderdiek, ikastetxe pribatuen ituna zurrizteko eta betiko bermatzeko.

Barcinak berak onartu zuen telebistako programa batean D erduaren kontrako estrategia zela PAIren ezarpena; eta zabaltze prozesuan familiei ez zaie horren gabeziarik aipatu, ez eta aurrerantzean izan ditzaketan oztopoak ere. Hizkuntzen arteko "gatazka" faltsua sortu dute, ingeles maila egokia izatea eta euskararen irakaskuntza kontrajarriak balira bezala. Denetarik aditu dugu, eta lotsarik gabe argudiatu dute "ereduak ez dira inposatzen, familiei eskaintzen zaizkie ikastetxeetan, eta horretarako baliabideak jartzen dira, eta honela familiek hautatzeko askatasuna dute". Baieztapen hori ukatzeko hamaika adibide ditugu, asko baitira hezkuntza komunitateak bizi izan dituen inposaketa, xantaia eta, batez ere, iluntasuna. Zenbait kasutan zinegotzi baten eskaeraz ezarri da programa herriko eskola publikoan. Lotsagarria.

Ebaluatu ez den PAIren jarraitzaile leial agertu dira, eta ez dute ikusi nahi bitartekoen inguruan azaleratu den gabezia eskandalagarriarik, ez eta aurrerantzean hainbat ikaslek izan ditzakeen kalterik ere (hala nola eskolan bertan edota eskolatik kanpo ingeles maila hobetzeko ikasleek hartu behar duten laguntza). Iribasek sasiebaluazioa aurkeztu zuen Parlamentuan egindako agerraldian, inongo oinarri zientifikorik gabe, marketing hutsa azkenean.. Programan bete-betean sinisten badute, zergatik dira testatzearen beldur?

Atzerriko hizkuntzetan egoki trebatzea da hezkuntzaren helburuetako bat. Hori eta beste hainbat ezagutzaren aukera unibertsala behar du jaso sistema arautuak. Baina ingelesaren irakaskuntza ez da lehena, ez eta garrantzitsuena ere. Aukera unibertsala defendatzen dugu, eta aukera berdintasunaren aldekoak gara. Ikasleek erdietsi behar duten ingeles maila zehaztu behar dugu (bai eta beste hizkuntzena ere), eta zein bideri jarraitu behar zaion ongi heldu. European adibide egokiak ditugu, eta hor gaitasuna bestelako bideez lortzen da.

Barcinak defendatutako helburua sostengatzea da PAIrekin bat egitea inolako baldintzarik gabe, ebaluazio eta birplanteamendurik eta moldaketarik beharrezko ikusi gabe. Ikusmolde horrek hezkuntza sistemaren kalitateari arrotz zaion bestelako helburua defendatzen du; eta horrek ez du inolako loturarik hizkuntzaren irakaskuntzaren aukera unibertsalarekin.

